

## COVID-19 JARDUTEKO PROTOKOLOA

Euskadiko Futbol Federakundetik momentu batean taldeko norbaitek positiboa ematen badu jarraitu beharreko pausuak dokumentu batean helarazi ditugu.

Jarraitu beharreko gomendioak:

1. **Protokoloa betetzearen arduradunak [FENIX plataformara](#) igo behar du eskatutako dokumentua**, eta jokalariaren/teknikariaren kasu positiboa **idatziz jakinarazi** behar du ([info@euskadifutbol.eus](mailto:info@euskadifutbol.eus)) **posta elektronikora, hurrengo informazioa adieraziz:**
  - a. Positibo eman duen jokalariaren, teknikariaren edo taldeko kidearen izen-abizenak.
  - b. Gertaera kronologikoa eta gainerako taldeko partaideekin harremanetan jartzeko azken eguna deskribatzea.
  - c. Futboleko kideekin aldagelak partekatu dituen eta zenbat denbora eman duen jakinaraztea.
  - d. Entrenamenduetan musukoa erabili duen edo ez.
  - e. Sintomaren bat eduki duen edo ez.
2. Oso **garrantzitsua** da klubak **Osakidetzako aztarnariaren irizpidearen berri ematea**, gainerako langileekin harreman estua dagoela uste duen ala ez jakiteko, izan ere, arlo honetako agintari gorenaren osasun-irizpidea baita. Konfinamenduaren kasuan, 10 eguneko aldi horren hasierako data adieraziz.
3. **Klubak kasu positiboaren ziurtagiri medikoa** aurkeztu beharko du egiaztagiri moduan partidua atzeratzen bada.
4. Euskadiko Futbol Federakundeak **jasotako informazio guztia Federazioaren arduradun medikuari** helaraziko dio, atzeratzeko eskaerari buruzko erabakia har dezan.
5. Euskadiko Federakundeak, mediku arduradunak hala erabakitzen badu, **Batzorde Diziplinarioaren bitartez, partidua atzeratzeko ebazpena** emango die eskatu duen klubari, aurkariaren klubari eta Euskal Batzordearen Epaileri.

BABESTU ZAITEZ - CUÍDATE



Era berean, hainbat gauza ez ditugu ahaztu behar, eta gogoan izan behar ditugu:

- Partidak jokatzeko, **lizentzia** duten taldeko pertsonak, **gehienez, 15 egunean behin bete beharko dute “Covid Jarraipena”**.
  - **ASTEAN ZE HAR, astelehenean, 14:00ak baino lehen.**
  - **ASTEBURUETAN, ostegunean, 23:59ak baino lehen.**
- Antigeno testa **partidua jokatu baino 48 edo 72 ordu lehenago** egin beharko dute.
  - FENIX plataformara igo lizentzia duten eta proban negatiboa eman duten pertsonak sinatutako dokumentua.
- Antigeno testak **astean behin edo bi astean behin egin** beharko dira, dagokion lehiaketaren arabera.

**GARRANTZITSUA:** Protokoloan ezarritakoa aplikatu ezazue (gure webgunean aurki dezakezue) eta, zalantzarik izanez gero, kontsultatu inolako arazorik gabe.

BABESTU ZAITEZ - CUÍDATE